



**Ebazpena, 2019ko ekainaren 26koa, Hezkuntza saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, 2019/2020 ikasturterako Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua (IDEATK) hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenez betetzeko deialdia behin-behinekoz ebazten duena.**

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2019ko maiatzaren 15eko Ebazpenaren bitartez deialdia egin zen 2019/2020 ikasturterako IDEATK hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenez betetzeko.

Deialdiaren zazpigarren atalaren arabera arabera, balorazio-prozesua egin ondoren eta proposamena eginda, deialdiaren behin-behineko ebazpena jarriko da jendaurrean, Saileko web-orrian; halaber, erreklamazioak egiteko hiru egun balioduneko epea zabalduko da.

Horiek horrela, aurkeztutako eskaerak ikusita, hauxe,

### **EBATZI DUT**

**Lehena.-** Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzea I. Eranskinean agertzen den esleitutako lanpostuen behin behineko zerrenda.

**Bigarrena.-** Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzea II Eranskinean agertzen den baztertutako eskaeren zerrenda.

**Hirugarrena.-** Interesatuak euren eskubideei egokitzen zaizkien erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Hiru egun balioduneko epea izango da erreklamazioak egiteko, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 26a

**JON AGIRRE HUERGA**  
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**